

A05 - Lanbide-orientazioa: STEM lanbideen aniztasuna ezagutzea

Jarduera honetan, bertako talentua garatzea sustatzen da, eta ikasleengan STEM lanbideekiko interesa bultzatzea.

Ikasurtea
3. DBH
4. DBH

Data
2024ko otsaila - apirila

Lantzen diren irakasgaiak
Lanbide orientazioa

Jarduera mota
Adituaren bisita erakundera

Hizkuntza
Euskara

Irismen geografikoa
Bizkaia (Busturialdea, Durango, Mungia, Ondarroa)

Jarduera ematen duen erakundea
Maier S.Coop.

Curriculumaren edukiak

Lanbide-orientazioa laneko testuinguru errealean lantzea, STEM lanbideen irudi errealista eskainiz.

Zer ikasten dute ikasleek?

Lanbide-profil jakin batek eskaini diezaiekeen irudi osoagoa bat osatzea.

Garapena

ADITUAREN HITZALDIA. Profesionala ikastetxera joango da, eta zer ikasketa egin dituen, zein izan den bere ibilbide profesionala eta enpresan zer lan egiten duen jakinaraziko die ikasleei. Gainera, enpresaren, eskaintzen dituzten produktuen eta zerbitzuen, erabiltzen dituzten materialen eta teknologiaren eta produkzio-prozesuaren aurkezpen orokorra egingo du.

Azkenik, enpresak STEM arloan beharko dituen profil profesionalak azalduko ditu: ezagutzak, gaitasunak, trebetasunak, jarrera eta abar.

IKASLEEN BALORAZIOA. Ikasleek jardueraren balorazioa egingo dute.